

2025EKO-MAIATZA

EUSKARALDIA

Urola Kostan ere

*Elkar mugituz
egingo dugu*



GUKA

ARTZUBIA - AZPEITIA

ERAIKUNTZA BERRIA

Terraza zabal eguzkitsuak



1, 2, 3 eta 4. solairua



2. eta 3. logelako etxebizitzak

INFORMAZIOA · SALMENTA

943 15 70 07

www.muno.eus

 **MUNO**, S.A.

Argitaratzailea:
**Urolako Komunikazio
Taldea**

Helbidea:
Soreasu 1
AZPEITIA
943-81 38 41
943-89 00 17
urolakosta@ukt.eus



4-5

Sarrera

6-8

Bulego taldeari elkarrizketa

10-12

Arigune proiektua

16-22

Joxe Mari Unanue eta
Aitziber Besga

26-28

Araitx Illarramendi

30-36

Zirihika elkartea eta hitanoa

38-44

Eskualdeko hamaikakoa

46-47

Agenda

Eduki babestuak


14-15

Azpeitiko Udala

23

Azkoitiko Udala





EUSKARALDIA 2025

EUSKARA AKTIBATZEKO UNEA DA

Badator Euskaraldia. Ezohiko garaian, betiko helbururarekin, baina egitasmoa bera "ulertu, ikusi eta bizitzeko modua aldatzeko erronkarekin". 'Elkar mugituz egingo dugu' leloa aukeratu dute antolatzaileek Euskaraldiaren laugarren aldirako, "aktibazioan, mugimenduan, emozioetan eta bata bestearengan dugun eraginean" arreta jarrita.



"Elkarrekin mundua aldatu dezakegu esan zenidan. Zu nire hauspo izango zara nire zure babestokia", dio Bulego talde azkoitiarrak Euskaraldi-rako egin duen abestiak. Eta elkarrekin gauzatzekoa da, hain zuzen ere, aurtengo egitasmoak duen xede nagusia: denak batera, elkarrekin euskararen erabilera aktibatzea.

Izan ere, ate joka da Euskaraldia, eta Urola Kostako herritarrek euskararen aldeko egitasmoan murgilduko dira 11 egunez. Euskaraldiaren laugarren edizioa, aurreko hiruak ez bezala, udaberrian izango da, maiatzaren 15etik 25era. *Ahobizi*-ak, *belarriprest*-ak eta gainerako rol guztiak, euskara badute oinarri, ongietorriak izango dira euskararen erabilera aktibatzeke mugimendu sozialean.

"Euskaraldiaren helburuak zabaltzeko unea iritsi da: ez

da soilik ariketa egun horietara mugatzen den dinamika, euskararen erabilera aktibatzeke mugimendua elikatu eta gizartean errotu nahi duen ekimena baizik", agertu dute antolatzaileek. Beste era batera esanda, Euskaraldiaren helburu nagusia hizkuntza ohituren inertzia astindu eta herritarrek euskara gehiago erabiltzeko urratsak ematea da, eta, horrez gain, entitateek ere euskaraz bizitzeko aukerak eta neurriak hartzea sustatu nahi da. Euskaraldiak, modu kolektibo eta sozialean, tokian tokiko euskalgintza aktibatzea eta elkarlanean aritzea ahalbidetzen du, euskaraz bizitzea posible egingo duten neurriak hartuz eta espazioak sortuz.

Urola Kosta bailara euskalduna da, euskararen arnasgunea da. Egunerokotasuneko hizkuntza euskara izatera ohituta daude eskualdeko biz-

tanleak, eta askotan, horrek, eragin negatiboa izan dezake, adibidez, Euskaraldiaren beharraz ohartzeko edota egitasmoan parte hartzeko orduan. Joxe Mari Unanue Orio-Aiako koordinatzaileak eta Aitziber Besga Azpeitikoak aurreratu dute, ordea, eskualdeak badiuela erronka nagusi bat: hitanoaren erabilera sustatzea.

Ez da eskualdeak Euskaraldiari eta euskarari eman diezaiokeen gauza bakarra: Bulego taldearen abestia, Aia eta Ariguneak, Zirhika proiektua, edota Salto! udalekuen berri duzu, irakurle, hurrengo orrietan. Gehigarri honetan beharrezko eta intereseko guztia aurkitzea opa dizugu.

Eta, amaitzeko, *ahobizi* edo *belarriprest* rolak hartu nahi badituzu, izena eman eta parte hartu euskara aktibatzeke mugimenduan. Euskara ereiteko unea da! ■

Elkar mugituz
egingo dugun

Tomas Lizarazu
BULEGO TALDEKO MUSIKARIA

"BULEGORI ATE ASKO ZABALDU DIZKIO EUSKARAK MUNDUAN ZE HAR"




**GURE HIZKUNTZA
GURE INDARRA!**

alberdi

ALBERDI MEKANIZATU LANAK

Ugarte industrialea 2-3-4 - 20720 AZKOITIA - www.alberdimek.eus - 943 852 930

Euskaraldiaren aurtengo edizioa «berezi» bizi du Tomas Lizarazu musikariak (Azkoitia, 1993). Batetik, Azkoitiko hamaikakoaren kide delako eta, bestetik, Bulego arduratu delako ariketa sozial erraldoiari soinu banda jartzeaz, 'Gure bihotzaren taupadak' abestiarekin.

Martxoaren 13an aurkeztu zenuten Azkoitiko Euskaraldiko hamaikakoa; taldeko kidea zara zu. Zerk bultzatu zaitu konpromiso hori hartzera?

Konpromiso hau hartzera bultzatu nau, alde batetik, ikustek euskararen egoera ez dela ona; larrialdi linguistiko batean murgilduta gaude. Hortaz, iruditzen zait edozein bultzada beharrezkoa eta ongi-etorria dela. Ni, ahal dudan heinean behintzat, saiatzen naiz gure hizkuntzari bultzada hori ematen eta, kasu honetan, hamaikakoaren parte izateko pribilegioa eta zortea izan dut. Bestetik, urte honetan bereziki gertutik bizi dugu Euskaraldia Bulegon, abestia ere egin baitugu. Egiten den bakoitzean ukitzen gaitu Euskaraldiak,

baina aurren, beharbada, gehiago eta sakonago ukituko gaitu. **Zer itxura hartu diozu hamaikakoari? Islatzen al du, zure ustez, Azkoitiko errealitatea?**

Bai, nik bizi dudaren errealitatea behintzat islatzen du. Anitza da generoaren eta jatorriaren aldetik, ez dago bizi guztiko azkoitiarraren profila soilik, azkoitiar berriak ala hemen jaioetakoak ez direnak ere agertu ziren. Hamaikako polita eta interesgarria osatu dela uste dut.

Horrez gain, Euskaraldiko kantua sortu duzue Bulegokook: Gure bihotzaren taupadak. Nolako izan da jendearen erantzuna?

Oso polita izan da, eta denbora pasatu ahala, ikusten ari gara zeinen harreman polita sortzen

ari den Euskaraldiaren eta Bulegoren artean. Kantua kaleratu genuenean, abenduan, pentsatzen genuen gure parte a jadanik amaitu zela. Baina ikusten ari gara luzerako harremana izango dela Euskaraldiarekin daukaguna, Euskaraldiaren eta Bulegoren arteko komunikazioa bizi-bizirik baitago. Kantuaren harrerari so egiten ari gara, eta oso polita izaten ari da. Euskaraldikoek partiturak eskatu dizkigute, jendeak eskatu dizkielako. Toki askotara iristen ari gara, eta hori zen helburua: ahalik eta pertsona gehien piztea Euskaraldira gertura daitezen eta, batez ere, euskararen erabilpena gertura daitezen. Beraz, abestia ezarritako helburuak lortzen ari dela esango nuke.




LEIHOAK.com
eta toldoak
Leihoen eta toldoen erakusketa

www.leihoak.com

Zelai Ondo 23, ZARAUZ
943-00 22 75 • 619 43 20 79 • leihoak@leihoak.com



Zu bezala herri euskaldunetako ahobizi-ak direnek, zer egin dezakete Euskaraldian euskararen alde koska bat gehiago emateko?

Uste dut arnasmune batean egoteak ez duela esan nahi erlaxatu behar garenik. Oraindik badira joera batzuk, askotan nahi gabe jarraitzen ditugunak, baina euskararen kalterako direnak. Arazo edo erronka horiek zeintzuk diren identifikatzea garrantzitsua dela uste dut. Gure gune ezagunetik ateratzen garenean, euskarari tinko eustea garrantzitsua da. Batzuetan badugu gaztelarera salto egiteko joera, hiriburuetara joatean bereziki. Bultza egin behar dugu euskara eta gaztelera uztartzen dituzten elkarriketak normalizatzeko. Gaztelarazko erantzun bat jasotzean sortzen den deserosotasun txiki hori gainditzea garrantzitsua da eta, horretarako, garrantzitsua da presente izatea arnasmunetik kanpo ere euskaraz egin behar dugula.

Bestalde, herrian, oso garrantzitsua da gaztetzontzako ere-

du izatea. Nire inguruan, gero eta gehiago sentitzen dut badugula *euskañol* moduko bat erabiltzeko joera, esamolde batzuk erdaraz esatekoa. Esamolde horien ordezkoko oso onak ditugu euskaraz, eta ez badaude, sortu daitezke. Esango nuke, baita ere, euskaraz egiten duenari harrera ona egin behar diogula; epaitu gabe, barre egin gabe... Saiakerak beti hartu behar dira ondo.

Bulegon euskaraz sortzen dituzue abestiak. Inertzia naturala da ala kontzienteki hartutako erabakia?

Euskara ez zen hautu linguistiko bat izan Bulegon; gu azkoitiarrak gara, eta euskaraz egiten dugu gure bizitza. Dena den, hasieran uste genuen euskaraz abesten duen taldea izatea ezaugarri bat gehiago zela beste askoren artean, eta denborak erakutsi digu euskara dela, beharbada, Bulegoren ezaugarri garrantzitsuenak. Gaztelaraz edo ingelesez kantatuko bagenu, agian ez genioke halako jakin-mina piztuko jendeari; talde bat gehiago izango ginatke. Euskaraz abes-

teak, aldiz, talde desberdin bat bilakatzen gaitu, zentzurik onenean.

Euskara zabaltzen ari zarete orain ere; Euskal Herritik kanpo, gainera. Belarriprest-ak edonon topatzen al dituzue?

Bai, eta asko harritzen gaitu horrek. Sorpresaz ikusten dugu zenbat euskaldun dauden Euskal Herritik kanpo. Munduan zehar euskara aurkitzen duenean, jendea deigarria egiten zaio. Gu ohituta gaude euskaraz bizitzera, gauza normal bat balitz bezala bizi dugu, baina berezia da, bakarra. Kanpoko jendeak asko baloratzen du hori, eta *belarriprest* edo *ahobizi* asko ikusten ditugu kanpora joaten garenean. Bulegori ate asko zabaltu dizkio euskarak munduan zehar, nahiz eta garai batean pentsatzen zen euskaraz abesten zuenak Euskal Herrian geratu behar zuela, txikira jokatu behar zuela.

Zer esango zenioke jendea Euskaraldian parte hartzera animatzeko?

Ez da ezer kostatzen, ezta? Izena eman, txapa jarri eta kontzientzia piztu. *Ahobizi*-en kasuan, euskaraz egin dezatela lehenengo hitza eta euskarari euts diezaiotela gaztelarazko erantzun baten aurrean. *Belarriprest*-en kasuan, txapa jantzita ate bat irekitzen diote euskarari, euskaraz entzuteko gogoia dutela adierazten dute. Keinu txikia da, baina asko alda dezake. Bestalde, agerikoa dena: euskarak edozein bultzada behar du. Pentsatu behar dugu nork bere ardurak hartu behar dituela; bada nahikoa arrazoi Euskaraldian parte hartzeko. ■



azkuelek



DEKORAZIOA
ARGIZTAPENA
OPARIAK



Araba kalea, 41
(Eroski ondoan)

20800 ZARAUTZ

943-13 04 33



EDONORK, EDONOREKIN, EDONOIZ

Gipuzkoa Arigune proiektua aurkeztu zuten otsailean, euskararen ulermena orokortzeko eta erabilera aktibatzeko helburuarekin, eta Aian egin dituzte lehen urratsak. Orain, Euskaraldia aprobetxatuta, egitasmoa mahaigaineratu nahi dute, gerora jendeak ezagutu eta jarraipena izan dezan.





80ko hamarkadan loratutako euskara elkarteen indarrak batzeko sortu zuten 1996. urtean Euskaltzaleen Topagunea. Elkartearen webguneko informazioaren arabera, "sortu zenetik gaur egunera bitartean, Topagunearen funtzio nagusia izan da elkarte horien zerbitzueta egotea, baita nazio mailako erakundea izatea, euskarari buruzko pentsamendua eta diskurtsoak sortzeko eta gizarteratzeko gaitasunean indartzea, eta bazkideen formazio eta harre-rako mekanismoak eratzea ere".

Iaz, baina, helburu horiek bete samartuta, "ekarpenak egiteko modu berriak" aurkitzeko asmoarekin eta "euskarak mugimendua behar duela sinetsita", topagune izatetik mugimendu izatera igaro zen elkarte, Taupa izena hartuta. Aipatutako helburu hori betetze alde-ra, talde horrek, Gipuzkoako Foru Aldundia-rekin batera eta Soziolinguistika Klusterraren eta Badalaben laguntzarekin, Gipuzkoa Arigune egitasmoa jarri du martxan. Otsail hasieran aurkeztu zuten proiektua, Donostiako Tabakalera kultura zentroan.

Egitasmoaren abiapuntura iristeko, 2020. urtera egin behar da atzera. Garbiñe Mendizabal Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako zuzendariak azaldutakoaren arabera, 2020. urtean, Pello Jauregi soziolinguistak galdera bat egin zion orduan Gipuzkoako ahalzun nagusia zen Markel Olanori, lehen horrek Abbadia saria jaso zuenean: "Noizko Gipuzkoa osoa arigune?". Erronkari heldu zion orduan Olanok, eta horren emaitza Gipuzkoa Arigune egitasmoa. "Ilusio handia pizten digu proiektuak. Amets bat litzateke Gipuzkoa osoa arigune izatea", gehitu du Mendizabalek.

Zer da, ordea, Gipuzkoa Arigune? Jasone Mendizabal da proiektuaren koordinatzaile nagusia, eta haren hitzetan, "etorkizuneko ikuspegi bat da non edonork, edonorekin eta edonoiz euskaraz mintzatzeko aukera izango duen". Hori gertatzeko gutxieneko bi baldintza aipatu ditu Mendizabalek: bata, euskara erabiltzeko gutxieneko ulermena izatea bi aldeek, eta, bestea, euskaraz hitz egiteko gogoia edo grina edukitzea. Hizkuntza Berdintasunerako zuzendariaren arabera, egitasmoa martxan

jartzeko leku aproposena da Gipuzkoa, "soziolinguistika aldetik abantaila gehien dituen lurraldea delako". Ideia horri jarraika, proiektuaren koordinatzaileak azaldu du "ezagutza datuek aspalditxotik goia jo dutela" -eremu euskaldunetan galerarekin, gainera-. "Horregatik, testuinguruak eskatzen zigun zerbait desberdina egitea, eta euskaigintza instituzional eta sozial guztia ideiei bueltaka hasi ginen", gehitu du.

Metodologia berritzailea

Proiektuak lau ardatz izango ditu. Lehenik eta behin, komunitatearen parte hartzea; horretarako, talde dinamikak sustatuko dituzte herriz herri, eta baliabide horiek esku-eskura jarriko dizkiete herritarrei. Bigarren elementua litza-teke parte hartze kolektiboa, hirugarrena adostasun zabala, eta, azkenik, metodologia berritzaileak leudeke. Azken horri dagokionez, Mikel Ozaita Taupako koordinatzaileak eman ditu azalpenak: Aldahitz ikerketa jarriko dute martxan. Horren hipotesia da hitz egiten hasteko ez dela ezinbestekoa euskaraz ongi hitz egiten jakitea; ulertzea nahikoa izan daitekeela bestea euskaraz hitz egiten hasteko, betiere, horretarako testuingurua sortuz gero.

Horretarako, hiru metodologia ari dira prototipatzen, pilotatzen eta garatzen: arlo informalean probatzen hasi diren *Uler-saioak* –ulermena lortzea da xedea; 120 ordutan, B1 ulermen mailara iristea–; *Ulerrizketa* –euskaraz ulertzeko tarteko maila dutenen eta maila ona dutenen arteko elkarrizketak sustatzen dira–; eta *Eusle* –euskara erabiltzeko konpromisoa hartzeko; Euskaraldiako rolak dira horren adibide–. Ozaitak azaldu du herritarren arteko kooperazioa dela metodologia horien bereizgarrietako bat. "Hiztunek elkarren arteko harremanetan eta elkar lagunduz garatzen dituz-

te gaitasun berriak, eta gaitasun horiek praktika berri bilakatzeko testuinguru bat ere topatzen dute, elkarri hizkuntza ohiturak aldatzeko zilegitasuna aitortuz".

Hiru leku probarako

Momentuz, esperimentazio fasean dago proiektua, eta lehen pauso horiek emateko Gipuzkoako hiru leku aukeratu dituzte: Donostiako Añorga auzoa, Aia eta Antzuola. Ez dituzte ausaz aukeratu, baizik eta hainbat arrazoigatik. Alde batetik, "herri edo auzo koxkorrak" direlako horiek, eta badituztelako euren azpiegiturak. Bestetik, eskualde desberdinetan daudelako, eta, azkenik, ezaugarri ezberdinak dituztelako: batzuk landa eremutik gertuago daude besteak baino, batzuk herriak dira, bestea auzoa...

Ozaitak modu positiboan baloratzen ditu lehen pauso horiek, "ilusioa" sumatzen baitu egitasmoan parte hartzen ari diren udalen, elkarteen eta euskaltzaleen artean. "Antolaketan parte hartzeko prest dauden talde politak osatu dira hiru guneeetan, eta horrez gain, laguntza emateko prest ere agertu dira herritar asko", gehitu du. Aurrera begira, epe motz eta ertainera, dituzten helburuei buruz ere mintzatu da Ozaita. Haren hitzetan, epe motzean elkarrekin eta erakundeetan hizkuntza kudeaketari eta komunikazioari lotutako irizpideak landu eta adostu nahi dituzte, eta aldi berean, Euskaraldia datorrela aprobetxatuta, gaia mahaigaineratzen saiatuko dira. Pixka bat aurrerago, aldiz, hiztun bakoitzak urratsa egiteko proposamenak garatuko dituzte, oraindik ulertzen ez duten horiei euskara ulertzeko gogoia sentiarazteko eta praktika linguistiko berriak aktibiarazteko. "Oraindik barruko lanean gabiltza, baina gero aterako gara kalera", adierazi du. ■



ikastola

Gu elkarrekin, euskaraz:
arnasgune bat etorkizunari



azpeitiko
ikastola

ikasberri koop.e.



ikastolen elkarte

Lololako Inazio hiribidea 26 • 20730 Azpeitia • Tel.: 943-15 12 46
ikasberri@azpeitikoikastola.eus • www.azpeitikoikastola.eus



"APURKA BADA ERE, GARRANTZITSUA DA LAN ESPARRUA EUSKALDUNTZEA"

Azpeitiko Udalak herriko enpresei euskara planak garatzen laguntzen die, Eleguneren bitartez. Elegune hizkuntza kudeaketarik egokiena lortzen laguntzeko zentro teknikoa da, eta guztiz doako zerbitzua da.



Euskarari dagokionez, zeintzuk dira enpresek lan esparruan dituzten arazo nagusiak?

Lan esparruan euskaraz aritzea, kasu askotan, ez da erraza izaten. Administrazio arloan edota euskaldunak ez diren pertsonekin harremantzerakoan, arazoak edo zailtasunak aurki daitezke.

Azpeitiko Udala 2006tik ari da herriko lan arloa euskaldundu nahian, Elegune zentro teknikoaren bidez. Zer da Elegune eta zein da bere helburu nagusia?

Herriko enpresei hizkuntza kudeaketarik egokiena lortzen laguntzeko zentro teknikoa da Elegune, eta udalaren Euskara Sailaren mendeko zerbitzua da. Herriko giroarekin eta ohiturekin alderatuta, enpresetako jarduna erdaldunagoa da. Herritarrek egunaren zati handi bat lantokian pasatzen dute, eta beraiei ohituretan eragin handia du han egiten, ikusten eta sortzen dutenak, baita enpresek herrira begira ematen dituzten mezuek eta irudiak ere. Horregatik, apur-

ka bada ere, oso garrantzitsua da esparru hori euskalduntzea. Badakigu ez dela lan erraza, inertzia eta ohitura asko aldatzea eskatzen duela, enpresarientzat zein langileentzat, eta horregatik, udalak haien ondoan egon nahi du, baliabideak jarri eta bide hori errazteko.

Zer zerbitzu eskaintzen ditu Elegunek?

Zerbitzu profesionala eta integrala eskaintzen du, eta bere eginkizuna da laguntza eta baliabideak esku-eskura jartzea,

enpresetan euskarari dagokion tokia eta funtzionaltasuna aurkitzeko. Hori, batez ere, enpresetan euskara planak garatuta egiten du. Horren barruan, enpresei, besteak beste, hizkuntza irizpideak finkatzeko laguntza, itzulpen zerbitzua eta euskarazko aplikazio informatikoak eskaintzen dizkie, eta baita Bikain ziurtagiria lortzeko laguntza eman ere.

Nola har dezake parte herriko enpresak batek?

Erraza da prozesuan parte hartzea, eta herriko edozein enpresa jar daiteke harremanetan udalaren Euskara Sailarekin. Zerbitzua doakoa da, gainera. Eskaera egin, eta aurrena Eleguneko teknikariak enpresa horren diagnostikoa egiten du, entitatearen funtzionamenduari hainbat alderdi ezagutzeko: komunikazioa, lan bilerak, idazkiak, hornitzaileekin harremana... Behin diagnostikoa eginda, enpresa horren argazki hori abiapuntutzat hartu, eta pausoak ematen hasten dira. Urtero-urtero kudeaketa plan bat proposatzen du teknikariak, eta enpresako arduradun edo batzordearekin batera jarraipena egiten du.

Eleguneren eta enpresaren arteko elkarlana da, beraz.

Nabarmendu behar da zerbitzu eta aholkularitza teknikoa eskaintzen dela, baina euskararen

aldeko jarrera izatea beharrezkoa dela aurrerapausoak emateko. Mota guztietako enpresak daude, izaerari zein euskararen erabilera mailari dagokionez. Udalaren helburua da denentzat laguntza eta akuilu izatea, euskaraz kudeaketan txertatzen hasi berri direnentzat zein urrats garrantzitsuak eginak dituztenentzat.

Zeintzuk dira zerbitzuaren ondorioz izandako emaitzak?

Azken urteetan, herriko zenbait enpresak lortu dute Urrezko Bikain ziurtagiria Elegunek lagunduta. Guztira, bost enpresa dira Urrezko Bikain ziurtagiria dutenak, eta bat da zilarrezkoa duena. Azkena, 2024an, Abelur izan zen. Horiek 2018an eskuratu zuten lehenengoz Urrezko Bikain ziurtagiria, eta 2024an berriro egin zuten. Beste enpresa bat, berriz, ziurtagirira aurkezteko prestatzen ari da, eta San Martin egoitza bere hizkuntza politika definitzen.

Enpresen aldetik zerbitzuaz zer-nolako balorazioak jaso dituzue?

Enpresa askok beraien egunerokoaren zati handi batean euskaraz egingo dute, baina azterketak eginda, beti agertzen dira zer hobetuak (langileei egiten zaizkien kontratuak, Gizarte Segurantzako agiriak, aplikazio informatikoak...). Elegune udalak herriko enpresei dohainik

eskaintzen dien zerbitzua izanda, haientzat aukera ezin hobea da egunerokoan euskararen presentzia areagotzen joateko.

Abelur kooperatibak zerbitzuaren balorazio positiboa egin du: "Garbi dugu Elegunek eskaintzen duen laguntza teknikoa ezinbestekoa dela enpresa txiki eta ertainetan euskararen presentzia berma dadin. Abelur bezala, udalari ematen digun laguntza eskertu beharrean gaudela".

San Martin egoitzan, berriz, egoiliarren eta haien familien beharretarako egokitzeko premia ikusita abiatu dute prozesua. Hala, aurrez emandako pausoak aztertu eta hemendik aurrera zer pauso eman ditzaketen ikusi dute Eleguneren bidez. Zentroko zuzendari den Lierni Santamariak argi du horrelako prozesu bat garatzea ezinezkoa litzatekeela Elegune bezalako zerbitzurik ez balitz: "Beraiek ekartzen dituzte ezagutza teknikoak, eta beraien presentziak eragiten dizu, nolabait, pilak jartzea. Azkenean, hurrengo asteen bilera bat izateak landuko diren gaiak berrikustera bultzatzen zaitu eta pausoak ematera. Gainera, asko errazten dituzte lanak: aktak eta bibliografia jasotzen dituzte, zalantzak unean bertan erantzuten dituzte, zure beharrak kontutan hartzen dituzte...". ■



Azpeitia
Denontzat

"NAHIZ ETA OSO EUSKAL GERO, KALEAN EZ DA BE

Joxe Mari Unanue
ORIO-AIAKO
EUSKARALDIAREN
KOORDINATZAILEA

Euskaraldiaren laugarren edizioa maiatzaren 15ean hasi eta 25ean bukatuko da. 11 egun izango dira euskararen erabilera aktibatzeko eta herritarren hizkuntza ohiturak aldatzeko. Baina 11 egun horiek behar bezala joateko, atzeko lan asko egin beharra dago, eta horretaz asko dakite Joxe Mari Unanuek eta Aitziber Besgak, Orio-Aiako eta Azpeitiko Euskaraldiaren koordinatzaileek, hurrenez hurren.

DUNAK IZAN, ADI JARRIZ TI EUSKARA ENTZUTEN"

Aitziber Besga
AZPEITIKO
EUSKARALDIAREN
KOORDINATZAILEA





Elkar mugituz egingo dugu lelopean dator aurtengo udaberrian egingo den Euskaraldia. Zer helburu edo asmo ditu hastear den laugarren edizioak?

JOXE MARI UNANUE: Nire ustez, aurreko edizioek izan zituzten helburuen antzekoak ditu aurtengo Euskaraldiak ere: euskaldunon artean euskaraz hitz egitea, eta euskaraz ulertzen dutenei euskaraz egitea. Horren inguruan kokatu da aurtengo egitasmoa.

AITZIBER BESGA: Hori da. Horrez gain, euskaldun berrientzat leku bat eskaintzea ere bada asmoa, euskaldun zaharrei gerturatu daitezen.

Zeintzuk dira aurtengo berrikuntzak?

A.B.: Entitateei dagokienez, lanketa sakona egiteko auke-

ra eman da aurtun: entitatearen barnean azterketa egin, hizkuntza ohiturak aldatu behar diren begiratu eta abar.

J.M.U.: Bestalde, Euskaraldia Hika sartu da aurtun, ZirHika taldearekin lankidetzan antolatu dena. Herri bezala eman behar da izena bertan, eta esan dezakegu Urola Kostan herri gehientsuenak animatu direla. Horrek esan nahi du herri horietako herritarrek parte har dezaketela egitasmoan, eta horretarako, txapan itsatsi ahalko den H jartzen duen pegatina bat beharko da. Txaparekin batera emango da pegatina hori. *Belarriprest* gisa funtzionatuko du horrek hita-noari dagokionez, alegia, berrari euskaraz eta gainera hikaz hitz egiteko eskatzen die gai-nontzekoei.

Kolektiboki nahiz banaka parte har dezakete herritarrek Euskaraldian. Zeintzuk dira bideak?

J.M.U.: lazko rol berdina mantentzen dira: *ahobizi* eta *belarriprest*. *Ahobizi* rola denei euskaraz hitz egiteko konpromisoa hartu nahi duenarentzat da, hau da, lehenbiziko hitza euskaraz egitea, eta besteak ez duela ulertzen esan arte, euskaraz jarraitzea, nahiz eta ez erantzun euskaraz. Hori izaten da normalean zailtasun handiena. *Belarriprest*-ak, berriz, jakintzagatik, beharragatik edo ohituragatik, Euskaraldiko egun horietan beraiekin euskaraz hitz egitea nahi dutenak dira.

A.B.: Euskaraldian izena ematea nahi duten herritarrek bi modu dituzte: Euskaraldiaren

EUSKARALDIAREKIN,
AIZARNAZABALDIK MUNDURA
EUSKARAZ



*Elkar mugituz
egingo dugu*



EUSKARAK
365
EGUN



AIZARNAZABAL

udala



webgunean edo herriz herri jarriko diren informazio mahaietan. Enpresen kasuan, horiek ere izena eman beharko dute. Hori bai, lehenbizi herri bakoitzeko batzordeak izena eman beharko du herri gisa, eta ondoren eman behar dute izena entitateek. Behin hori eginda, azterketa sakonean parte hartzeko aukera izango dute. Martxoaren hasieran itxi zen, ordea, entitateen azterketa egiteko aukera; dena dela, izena ematen jarrai dezakete, norbanakoek bezalaxe.

Izen emateak zer moduz doaz zuen herrietan?

A.B.: Ondo doa, normalean azken egunetan izaten dira izen emate gehienak eta. Azpeitiko kasuan, adibidez, nabarmentzekoa da entitateen izen ema-

tea; izan ere, 50ek baino gehiagok eman dute dagoeneko.

J.M.U.: Aian eta Orion gauza bera ari da gertatzen, poliki-poliki ari dira izena ematen herri-tarrak. Egia da lanketa berezia egingo dugula txapak banatzen hasten garenean, eta espero dugu orduan jende gehiagorengana iristea eta horiek ere izena ematea Euskaraldian. Baikorrak gara, baina gero ikusi beharko da.

Zer moduz joan dira aurreko lanak?

J.M.U.: Oso ondo joan dira. Jendea animatu zen bi herrietan, eta batzordeak eratu genituen. Herri-tarrak laguntzeko gogoz daude, eta egia esan, oso ondo etortzen da babes hori. Orokorrean, lana egiteko gogoia ikusten da, eta pozgarria da.

A.B.: Azpeitian, berriz, herritarrak baino gehiago, ikastetxeetako ordezkariak iritsi zaizkigu. Hala, herrira nahiz ikastetxeei begira ari gara lanean, baina, batik bat, ikasleetan ari gara fokua jartzen, uste baitugu horien bidez iritsi gaitzkeela famulietara.

Zer nolako egitarauak prestatu dituzue?

J.M.U.: Programazioa egiten hasiak gara, gure kasuan, herri bakoitzaren ezaugarrien eta biztanleen arabera. Ekitaldiak, ordea, denetarikoak izango dira. Orio eta Aia, adibidez, oso herri desberdinak dira, biztanle kopuruari eta horien gustuei dagokienez. Herri bakoitzak du berezi egiten duen zerbait.

A.B.: Hamaikakoa aurkeztu ondoren, Euskaraldiko egune-



GKN Driveline Zumaia
AUTOGINTZARAKO PIEZAK



Zumaitik mundura,
AUTOGINTZAN ETA EUSKARAZ



tan zentratuko gara. Azpeitian, Hikari begira izango dira ekintza asko, baita euskaldun berriei begira ere. Hika eta batez ere noka indartzea lortu nahiko genuke nolabait.

Hitanoa indartzea aipatu duzu. Herri oso euskalduna izatearen ondorioa al da hori?

A.B.: Bai, dudarik gabe. Azpeitiarrak, askotan, ez dute Euskalraldiaren behar hori sentitzen. "Hau zertarako?" da informazio mahaletan gehien entzuten den galdera, eta hori, azkenean, egunerokotasunean euskaraz bizi garelako da. Baina, agian, ez gara ohartzen Euskalraldia ez dela euskaraz hitz egiteko ariketa bat soilik, hizkuntza ohiturak aldatzeko dela baizik. Beraz, Euskalraldia Hika herritarrentzat beste motibazio bat izan daiteke.

J.M.U.: Guri ere antzeko zerbaite gertatzen zaigu, eta lanketa berezia egingo dugu hitanoaren inguruan.

Zer sentipen dituzue zuek Euskalraldiari begira?

J.M.U.: Nik baikortasunez begiratzen diot. Gero emaitzak ikusi beharko ditugu, baina, hasiera batean behintzat, baikorra naiz. Aurrez esan bezala, Euskalraldia Hika berrikuntza da. Toka aritzeko ohitura badago eskualdean, baina nokaren arloan hutsune ikaragarria dago, eta hori itzulia ematea espero dugu, hortik etorriko da arrakasta. Eragina izaten hastea espero dugu behintzat.

A.B.: Positibo hitza hartu, eta mahai gainean jartzea da ego-

kitzen zaiguna. Zalantzarik ez dut jendeak parte hartuko duela, ekitaldiak izango dira, eta giro ona ere bai. Udaberrian ospatzeak eragina ere izango duela uste dut, etxetik gehiago ateratzen gara, eguraldi hobea egiten du... Esperantza badugu.

Urola Kosta Euskal Herriko euskaldunenetakoa da. Zer garrantzi dute Euskalraldia gisako egitasmoek? Zertan eragin dezake?

J.M.U.: Jendeak gauza bera galdetzen du, baina nahiz eta oso euskalduna izan, belarria adi jarritz gero, kalean ez da beti euskara entzuten. Ziur asko, nahiko genukeena baino gutxiago entzungo dugu. Horren aurrean bakoitzak pentsatu behar du zer egiten duen eta zer egin dezakeen. Politia izan daiteke Euskalraldia euskararekin lotura horiek sortzeko. Askotan jende askori ez gatzazkio euskaraz zuzentzen euskaraz ez dakitela pentsatzen dugulako, batik bat, atzeritarren kasuan.

A.B.: Azken finean, egunerokotasunean ohituta gaude euskaraz hitz egitera, bizitzera, baina eremu horretatik irteten garen unean, oso erraz jotzen dugu beste hizkuntzetara: herriz aldatzean, hirietara joatean edota gure aurretik dagoena euskara ez den beste hizkuntza batean hitz egiten sumatzean. Enpatia sentitzen dugu besteei, eta beste hizkuntza batzuetara jotzen dugu. Horregatik, gureari eusteko ohitura indartzeko balio lezake Euskalraldiak.

Zer eman diezaioke Euskalraldiak eskualdeari? Eta alderantziz?

A.B.: Eskualdeak euskara eman diezaioke Euskalraldiari, eta beraz, inguruari. Gu oso euskaldunak garela ikusita, gainontzeko herriei zuzen eragin diezaikegu. Kanpotik datozenek gu euskaraz hitz egiten entzuteak, euskaraz nola bizi garen ikusteak, haiek ohartarazi ditzake, eta ingurua indartu dezakegu.

J.M.U.: Eredut izan gaitezke. Ez dakit zer sentipen izan ditzaket euskaldunak ez diren herrietakoek, baina, agian, ezinezkotasan horretatik ikus dezakete, eta hor eragin genezake.

Euskalraldia maiatzaren 25ean amaituko da. Egun horretatik aurrera, zer gertatuko da euskararekin?

A.B.: Aurrez esan ditugun puntu guztiei erantzuna emanda egotea gertatu beharko luke.

J.M.U.: Ederra izango litzateke egun horietan lortuko denari eustea, denbora batez behintzat. Bi urtez behin etortzen da Euskalraldia gogoraraztera, baina, zenbat eta gehiago iraun, orduan eta jende gehiagorengana iritsiko litzateke eragina, eta hori izango litzateke politena.

A.B.: Euskalraldiak 11 eguneko iraupena du, ezin delako urte guztira luzatu, indarra galtzen joango litzatekeelako, baina bi urtez behin eta edizioz edizio indartzen joaten bada, geroz eta jende gehiagorengana iristea lortuko genuke, eta horrela lortuko dugu euskara indartzea. ■

APPA HI! HIKA ERRAZ ETA GOZATUZ IKASTEKO ETA PRAKTIKATZEKO APLIKAZIOA, ESKURA

Teknologia eta entretenimendua lagun, APPA HI! aplikazioak toka eta noka praktikatzeko aukera paregabea eskaintzen du.

Hitanoaren inguruko ezagutzak eta erabilerak beheranzko joe-
ra zuela ikusita, eta bereziki
nokaren osasun ahulaz ohar-
tuta, udala 2020an hasi zen
hitanoa berreskuratzeko eta
sustatzeko lanean. Ordutik,
Hike Eizan! lantaldearekin eta
Badihardugu euskara elkarte-
rekin elkarlanean, etengabeko
lanketa egin da hainbat egi-
tasmori bide emanez. Azkoit-
tiko Hike Poltsikun eskuliburua
kaleratu da, eskoletan hitanoa-
ri buruzko ikastaroak eta hitzal-
diak eskaini ditu Xabier Eiza-
girrek gaztetxoak trebatzeko,
eta bertsopaper lehiaketa eta
Hike Eizan! bertso saioa urte-
roko ekintza izatera pasatu dira,
agendan euren tartea hartuta.

Hori guztia borobiltzeko, iaz
Appa Hi! aplikazioa sortu zen,
hika hitz egiten ikasteiko eta
praktikatzeiko.

Aplikazioak modu errazean
toka eta noka praktikatzeko
aukera ematen die euskaldun
guztiei, baita hutsetik hasita
ere. Tresna erabilerraza da, eta
jolasuz ikasteiko diseinatu
dago.

Mila galdera inguru ditu apli-
kazioak, eta bakoitzak hiru
erantzun posible. Xabier Eiza-
girre adituak Azkoittiko Hike
Poltsikun liburuxkarako landu-
tako edukietan oinarritu zen
Badihardugu euskara elkarte-
a aplikaziorako edukiak lantzeko
orduan.

Aplikazioaren helburua da
erabiltzailea 35 egu-
neko epean
hika egiten
hasteko prest
egotea. ■



*"Zorionez, Azkoitia
euskararen arnasgunea da.
Gehiengo handia euskaraz
bizi gara. Alabaina, orain
arte lortutakoa hankaz gora
bota dezaketen mehatxuak
begi bistakoak dira, eta
horren aurrean ditugun
erronkak, handiak. Lehenik
eta behin, euskarari hegoak
eman nahi badizkiogu,
kontzientzia indartu behar
dugu. Euskararekiko lotura
identitariorik sentitu ezean,
gure hizkuntzaren
edertasuna eta aberastasuna
miretsi ezean, euskal hitzak
maitatu ezean, alferrik da.
Euskara irakasten asmatu
dugu, ez dakit maila berean
asmatu dugun euskararen
balioa eta esanahia
transmititzen. Aurrera
egiteko unea da, indarrak
batu eta lanean jarraitzea
dagokigu. Euskaraldiak
testuinguru aparta
eskaintzen digu euskararen
aldeko aldarria ozen
entzunarazteko,
'belarriprest'-en eta
'ahobizi'-en eskutik. Jar
dezagun bakoitzak gure
aletxoa, eta eraman dezagun
beti euskara ahoan, buruan
eta bihotzean".*

**Marijose Arregi,
Euskara zinegotzia**



NIK

hik, hark, denok

GUKA EGITEN DUGU



Eneritz Artebe / Bertsolaria

Azkoitia

Guka independentea da eta komunitatean du oinarria. Heritik eta herriarentzat sortua izanik, aurrera egiteko, guztion babesa eta lankidetzaz ezinbestekoak dira.

GUKA

**ZUK ERE
EGIN GUKA**
egin bazkide

Eskaneatu QR-a, eman zure babesa
maiztak 31 baino lehen eta

***irabazi bidaia bat
Tenerifera.***



EUSKARALDIA GUKAn



Urola Kostan euskarak aurre egin beharreko erronkei buruzko erreportaje sorta eta mahai ingurua.



Webguneetan Euskaraldiaren gaineko jarraipen berezia egingo da herriz herri.



Bazkide guztiek etxean jasoko dute gehigarria Euskaraldiari lotutako edukiekin eta informazio praktiko guztiarekin.



Euskaraldia Hika: Nahi baduzu, nirekin hika egin dezakezu galdera-erantzunen jolasa, behin Euskaraldia amaituta egingo da.

GUKA

ARAITZ ILLARRAMENDI: "LAGUN ASKO ETA BERRIAK EZAGUTZEKO AUKERA EMAN DIDATE SALTO! UDALEKUEK"

Salto! udalekuetan parte hartu zuen Aritz Illarramendik (Getaria, 2008) iazko udan. Bizitako esperientzia errepikatze gogoz, aurtengo ediziorako ere eman du izena. Zarautzen bizi da, eta gazteen artean euskararen aldeko kontzientzia sustatzeko beharra dagoela azpimarratu du.

Zer dela-eta eman zenuen izena Salto! udalekuetan?

Euskal Herriko beste leku batzuk eta beste herri batzuetako lagunak ezagutzeko gogoan nuen, eta Salto! udalekuak horretarako aukera ederra izan zitezkeela iruditzen zitzaidan. Ez nuen hutsik egin; baita asmatu ere!

Noiz joan zinen, eta nondik barrena ibili zineten?

Badira zenbait urte UEMAK Salto! udalekuak antolatzen dituenetik, eta azken urteetan

gero eta arrakasta handiagoa dutenez, iaz, lehen aldiz, bi txanda antolatu zituzten. Ni bigarren txandara joan nintzen: uztailaren 4tik 12ra egin zen. Arantzik Elizondorako bidea egin genuen, tartean Doneztebetik eta Oronoz-Mugairetik pasatuta. Herri bakoitzean bi egun igaro genituen.

Udaleku ibiltariak dira. Zer moduz, alde horretatik?

Hasieran banuen kezka pixka bat, baina ibilbideak errazak izan ziren. Egia esan, eskertzen

da, beti leku berean egon beharrean, mendietan barrena herri batetik bestera joatea. Naturaz gozatzeaz gain, bestela ezagutuko ez nituzkeen txoko berriak ezagutzeko aukera polita izan zen.

Gazte pila bat elkartu zineten. Nongoak?

Udalerrri euskaldunetako gazteentzat da udalekua. Hori da baldintza. Beraz, udalerrri euskaldunetakoak ginen denok: Alegia, Igorre, Tolosa, Azpeitia, Orendain, Irura, Mallabia,

**NEURRIRA
EGINDAKO
MANUTENTZIO
ETA MANIPULAZIO
SOLUZIOAK**



OFIZINA
Pol. Ind. Jose Mari Korta
Parcela A-6-1 Módulo 4
Apdo. 81
20750 Zumaia (Gipuzkoa)

HARREMANETARAKO
(+34) 943 862 350
(+34) 943 862 386
eraman@eraman.com



*Elkar mugituz
egingo dugu*



GURE ATERPEAN



EUSKARAZ





Leitza, Aizarnazabal, Getaria, Gatika, Zeanuri, Zarautz eta abar.

Zer eman zizun udalekuetako esperientziak?

Lagun asko eta berriak ezagutzeko aukera, baita herri eta leku berriak ezagutzekoa ere.

Salto! udalekuek zer dute berezia?

Sortzen den giroa. Parte hartzaile guztiak euskaldunak izateak badu eragina, noski. Euskal giro ederra sortzen da. Gainera, UEMATik ahalegintzen dira euskararen egoeraren berri ematen, eta horren inguruko tailerrak ere izaten dira udalekuetan. Begiraleek ere laguntzen dute, eta euskaraz aritzea garrantzitsua zergatik den ulertzen dugu. Herri euskaldunetan euskaraz aritzen gara normalean, ia oharitu gabe, eta ez gara kontziente gure herrietatik kanpo euskara askoz ahulago dagoela. Horregatik, bai gure herrietan, bai gure herrietatik kanpo euskarari eustea zeinen garrantzitsua

den ulertzen lagundu dit neurri batean udalekuetan parte hartzeak; kontzientzia hartzen.

Aurten ere joango al zara?

Eman dut izena, eta baietz espero dut. 120 gazterentzako lekua dago udalekuetan, eta ea zozketan zortea dudan aurten ere.

Euskara dute ardatz udalekuek: udalerrri euskaldunetako gazteentzat dira. Zer harreman duzu zuk euskararekin egunerokoan?

Euskara da nire etxeko hizkuntza. Euskaraz hazi naiz. Euskaraz ikasi dut, eta nire ingurua erabat euskalduna da, bai familia, bai lagunartea. Ikastolan ere oso giro euskalduna izan dut, eta orain ere horrela jarraitzen dugu lagunartean. Hala ere, ohartzen naiz sare sozialetan eta ikus-entzunezkoetan erdaretara jotzen dudala askotan, batetik eta bestetik heltzen diren bideoak, filmak eta gainerakoak, batez ere, erdaretan jasotzen ditugulako. Hor hutsune handia dago oraindik,

baina gainerakoan euskaraz bizi naiz.

Zarautzen euskarak zer presentzia du gazteen artean?

Leku guztietan bezala, kontzientzia handirik gabeko jende asko dago. Berdin dio ingurumenarekin, eraso matxistekin, gazteen eskubideekin, sexu askatasunarekin edota euskararekin den. Mugitu ezean eta aurre egin ezean, mundu grisagoaren aldekoek hartzen dute lekua. Horregatik, garrantzitsua da kontzienteak izatea, eta munduari guk nahi diogun kolorea ematea, eskolatik, kaletik eta gure herritik hasita. Horren kontziente izanda, errazagoa da euskaraz aritzea eta euskarari eustea. Gazteen artean beharrezkoa da, ez dugulako gure aurreko belaunaldiak jasandako zapalkuntza hain agerian jasaten eta ez garelako hain kontziente. Argi ikusten da hori Zarautzen ere. Leku batetik bestera, eskola batetik bestera edo lagunarte batetik bestera, alde handia dago. ■



DOMUSA

T E K N I K

Etxeko berokuntza eta ur beroa ekoizteko sistemak

AEROTERMIA · BIOMASA · GALDARAK



*Domusa Tekniken ere
elkar mugituz
egingo dugu!*



EUSKARALDIA

"EUSKARAZ BIZI DIREN HERRIETAN HIKA EGITEA ERRONKA POLITA IZAN DAITEKE"

ZirHika elkarte

Euskaraldiaren aurtengo berrikuntzetako bat da hitanoaren erabilera sustatzeko Euskaraldia Hikan ere parte hartu ahal izango dela. ZirHika elkarte hitanoaren erabilera aktibatu nahian ari da, eta talde horretako kideek herritarrak animatu dituzte Euskaraldiak iraungo duen egunetan txapan *H*-a jarri eta ariketan parte hartzera.





EUSKARALDIA
Elkar mugituz egingo dugu

BIDAIATU, GOZATU!

LA GUIPUZCOANA

www.laguipezcoana.eus
info@laguipezcoana.eus
 943 85 11 59

AUTORIS ZERBITZUA

URATEGIAKI

AUTORIS ZERBITZUA

TALDE BIDAIAKI

AUTORIS ZERBITZUA

IKAS BIDAIAKI

AUTORIS ZERBITZUA

EZKONTZAK

AUTORIS ZERBITZUA

IBILALDIAKI

AUTORIS ZERBITZUA

MENDI-IRTEERAKI



ZirHika taldea sortu berri duzue. Zeintzuk elkartu zarete? Eta zer helbururekin?

ZirHika taldea Euskal Herri oso-ko leku askotako hika eragileek osatzen dugu. 2023ko azaroan Euskal Herriko I. Hika Topaketa egin zen Oñatin, bertan Euskal Herriko 80tik gora hika eragile bildu ginen, eta handik sortu zen ZirHika, elkarlanean hitanoa bultzatzeko. Beraz, gure helburua hitanoa –bereziki noka (neskei egiten zaien hika)– biziberritzea da, batez ere gazteen artean. Hika lagunarteko, familiararteko tratamendua da. Euskarak badauka hizkera informal hori, galtzen joan dena. Nahiko genukeena da erabilera areagotzea eta sendotzea, hizkuntza ohiturak aldatzea eta hitzunak aktibatzea, euskararen erabilera indartzeko.

**Hitanoa bultzatzeko ahalegi-
nean ari zarete. Zein da hita-**

noaren egoera Euskal Herrian? Zer datu dituzue esku artean?

Badihardugu euskara elkarteak Hikagin inkesta egin zuen 2023an, herriz herri hitanoaren egoera zein zen jakiteko. Inkesta herritarren pertzepzioan oinarrituta dago, eta 4.215 erantzun jaso zituzten, 287 herritakoak, zazpi probintzietatik. Ezin da esan egoera orokorra oso ona denik: inkesta bete zuten gehienek –%55ek– egoera eskasa edo oso txarra dela diote. Udalerrri euskaldunetan hitanoaren pertzepzioa hobea da. Arnasguneetan, adibidez, %29k ikusten dute hitanoa egoera kaskarrean. Gainerakoek egoera nahiko onean ikusten dute, toka bereziki. Noka, aldiz, okerrago.

Itxaropenerako datuak ere badaude: hitanoarekiko interesa dago eta herri askotan hitanoa biziberritzeko egitasmoak

egiten ari dira (hamarretik lauk diote hori). Ematen du kontzientzia bat badagoela, hitanoaren aldeko olatu moduko bat. Gainera, garai batean izan zuen ospe txarra gutxitzen ari da (hamarretik zazpi ez dute ezer txarrik entzun).

Urola Kostan euskara nahikoa osasuntsu dago; herri guzti-guztiak ez, baina batzuk arnasguneak dira. Dena den, ba al dakigu zein den hitanoaren egoera?

Urola Kostan ez da hitanoaren erabilera neurtu. Dakigula, Zumaian Xabier Azkuek eta Azpeitian Garbiñe Bereziartua eta Beñat Muguruza ikertzaileek hitanoak bizi duen egoera aztertzeke hainbat ikerketa egin dituzte. Bai Zumaian, bai Azpeitian ateratako ondorioetako bat izan zen seme-alabei neurri txikiagoan egiten zaie-
la hika. Xabier Azkuek ere



SALBATORE
MITXELENA
ikastola



EUSKARALDIArekin

*Elkar mugituz
egingo dugu*





adierazi
zuen Zu-
maian bai haurrek,
bai gazteek hitanoko forma
desegokiak erabiltzen dituz-
tela, gazte-helduagoek ez
dituztela hitanoaren paradig-
ma guztiak ezagutzen, ez ba-
tukoak ez Zumaiaakoak.

Datu zientifikorik ez dugu,
beraz, modu 'ez-akademikoan'
entzuten, ikusten dugunari
buruz aritu gintezke. Edozein
kasutan, hitanoaren erabilera-

ri buruz ezin da
hitz egin generoen
arteko arrakalaz hitz egin
gabe; izan ere, mutilak kontu-
ratu ere egin gabe hasten dira
hika egiten, umetatik; neskek,
ordea, hautu kontzientea egin
behar dute (normalean, egi-
tekotan, gaztaroan egin ohi
dute). Gainera, mutilek erre-
ferente pila bat dituzte, neskek
ez hainbeste. Baina mutilen
arteko erabilera ere jaisten ari
da aurreko belaunaldietatik

oraingoetara, adibidez, seni-
deen artean hika egiteari da-
gokionez.

Azken urteetan Urola Kostan
hitanoa eta bereziki noka haus-
potzeko ekintzak egiten ari
dira: Azkoitian Hike Eizan egi-
tasmoa eta ikastetxeetan tailer
eta hitzaldiak; Orion behin
baino gehiagotan egiten dute
ikastaroa eta aurten ere egi-
tekoak dira; Zarautzen ere behin
baino gehiagotan egin dituz-
te noka ikastaro motzak; Zes-
toan ere hitano ikastaroa egin
zuten duela urte batzuk...

**Noka ez dagoela inon osa-
suntsu esan duzue elkarriz-
keta batean. Toka dezente
jendek egiten du, baina noka
askoz ere gutxiagok, ezta?
Zenbaterainoko larria da
egoera?**

Beste galdera batekin eran-
tzutea izango da baina, gal-
detuko bagenu zenbateraino-
ko larria den euskararen egoe-
ra zer erantzungo genuke?
Bada, hitanoaren egoera eus-
kararena baino larriagoa da,
eta nokarena are eta larriagoa.

LANDETA
Burdin Lanak Berria, s.l.



EUSKARALDIArekin!

Anardi Area 9, Lasao auzoa 20730 AZPEITIA (GIPUZKOA)
info@landetaburdinlanak.eus • 943-81 54 97 - 605 77 10 28



- BURDINLANAK
- HIRIGINTZA
- SOLAIRUARTEAK
- ESKAILERAK
- NABEAK
- GANADUTEGIAK
- IGOGAILUAK
- PASARELAK





Datu kuantitatibo esanguratsu zenbait emate aldera, Beñat Muguruzak eta Garbiñe Bereziartuak Azpeitian egindako ikerketa baten arabera, 12-18 urte bitarteko mutilen %90etik gora hika aritzen diren bitartean, hika egiten duten neskak %5era ere ez dira iristen. Herri bertan eta ikertzaile berberak 2020an egindako beste ikerketa batek ere erakutsi zuen semeek hika egiten dieten gizonezkoak

%48,5 diren bitartean, alabei noka %14,7k egiten dietela eta amen %11,7k; amek semeek hika %17,3k. Amasa-Villabonan ere egin zuten ikerketa kuantitatibo bat (2021), eta bertan ikusi zuten seme-alabak zituzten amen %3k soilik egiten diotela alabari hika; semeari, aldiz, %10ek.

Azkuek ere 2000n Zumaian hika noiz-norekin-nola erabiltzen den aztertzeari ekin zio-

nean, adierazi zuen hasiera-hasieratik nokaren ahulezia bistan geratu zela, gizonezkoen aldean nekezago topatu baitzituen hitanoz jarduteko nolabaiteko ohitura zuten emakumeak. Toka erabiltzen jarraitzen duten beste herri batzuetan ere nokaren transmisioa etenda dago: ez dago noka egiten duen 50 urtetik beherakorik.

Zergatik galdu da hainbeste hitanoaren erabilera? Gene-





ro rolek
horretan
eragina izan du-
tela aipatu izan duzue...

Hitanoaren gainbehera orokorra izan da, hizkera hori gaizki ikusia egon delako: baserri-tarren hizkeratzat hartzen zen, hizkera zakartzat... eta baserri-tarrak gutxietsita zeuden. Nokaren kasuan, berriz, aurreiritzi horiei genero rolak gehitu zitzaizkien: emakumeak fina izan behar zuen eta ez zen egoki ikusten hari hika egitea; gainera, ez zuen parte hartzen hitanoa bizirik zegoen eremu informaletan (tabernak, kirolak, ehiza eta abar)... Ikastetxeetan ere hizkera formalari eman zaio garrantzia, eta informala alboratu egin da.

Euskaraldia dator aurki, eta euskararen erabilera sustatzeko ez ezik, zenbait herrik hitanoa sustatzeko ere baliatuko dute ariketa kolektiboa. Zer da Euskaraldia Hika? Zer helburu du?

Euskaraldia Hika egitasmoan 83 herrik parte hartuko dute. Oso kopuru polita da. Euskaraldiaren baitan zukaz gainera hika erabiltzera bultzatzen duen egitasmoa da Euskaraldia Hika. Euskaraldiko txapan *H*-a ipintzea litzateke, eta adierazi nahi

baduzu, hika egin dezakezu". Ez dago hika jakin beharrik *H*-a ipintzeko. Entzun nahi izatea nahikoa da, solaskideari hika hitz egiteko aukera ematea. Helburua hitano hiztunak aktibatzea eta sortzea da, eta hitanoa plazaratzea.

Nola parte har dezakete herri-tarrek? Eta zer egin behar dute han parte hartuko dutenek?

Euskaraldia.eus webgunean sartuta edo kalean jartzen dituzten mahaietan eman daiteke izena. Euskaraldia Hikan izena eman duten herrietako biztanleek galdera bat gehiago izango dute izen emate formularioan. Euskaraldia Hikan parte hartu nahi duten galdetuko zaie. Baietz erantzuten dutenek txaparekin batera *H*-a eskuratuko dute.

Urola Kostako hainbat herrik eman dute izena Euskaraldia Hikan. Uste duzue eskualde honetako herritarrek, bizimodua euskaraz egiteko aukera dutenek, erronka

bezala jar dezaketela hitanoaren erabilera areagotzea?

Bai, Urola Kostan erronka nagusia nokaren erabilera areagotzea litzateke, batik bat, toka nahikoa osasuntsu baitago. Euskaraz bizi diren herrietan hika egitea erronka polita izan daiteke.

Hitanoa erabiltzeko ohiturarik ez duten eskualdeko herritarrei, zer esango zeniekete haiek zirhikatzeko?

H-a behintzat jartzeko eta euren buruei hika entzuteko aukera emateko. Gutxien espero duzun tokian ere hika egiten dakien hiztunen bat egon daiteke, eta hanka sartzeko lotsarik ere ez izateko, sorpresa politak hartzeko eta emateko, ondo pasatzeko... gutxienez, hikaren aldeko interesa erakustea ez dela gutxi. Kontzientzia hartzeko balio dezake. Adibidez, *H*-a duen lagun taldea identifikatuz gero, hurrengo urratsa hika ikastaro bat antolatzea izan daiteke. Hika egiten ikastea ez da hain zaila; ohitura aldaketa da gehien kostatzen dena, eta Euskaraldia Hika oso aproposa da horretarako.

Euskaraldia Hikaz gain, beste hainbat proiektu dituzue esku artean. Zeintzuk dira horiek?

Euskal Herriko II. Hika Topaketa antolatuko dugu aurten eta Euskal Herriko II. Hikadromoa ere bai, iazkoa arrakastatsua izan zelako. Udalekue-tan (bertso udalekuak eta Salto! udalekuak) hika txertatzen saiatuko gara, praktika onen dekalogo bat ere pres-tatuko dugu... Hainbat bide jorratuko ditugu. ■

BieleGroup

PASSION FOR CHALLENGES



Biele enskararekin

Bulego nagusia

Larrañaga Industrialdea, 1 · 20738 Urrestilla, AZPEITIA Gipuzkoa

Tel.: +34 943 15 70 50

biele@biele.com

www.biele.com

ESKUALDEKO HAMAIAKAKOAK

Euskaraldiko lehendabiziko ediziotik, 2018tik, Euskal Herriko hamaikako orokorraz gain, herriz herri ere sortu dituzte hamaikakoak. Aurtengo udaberriko egitasmoan ere Urola Kostan hainbat herritan osatu dituzte. Hamaikako horietako kide batzuk aukeratu ditu Gukak, eskualdeko hamaikakoa osatzeko.

Lehendabiziko Euskaraldia 2018an egin zen, Euskal Herri guztiko ehunka herritako milaka parte hartzaileekin, eta hamaikakoak izan ziren lehendabiziko egitasmo haren oinarria. Ordutik, eta urtero, Euskal Herriko hamaikako orokorraz gain, herriz herri ere sortu dituzte hamaikakoak. Aurtengo udaberriko egitasmoan ere Urola Kostan hainbat herritan osatu dituzte, Errezilen, Azkoi-

tian, Getarian, Azpeitian, Orion, Zarautzen, Zumaian edota Aian, besteak beste. Hamaikako horietako kide izan diren herritar batzuk aukeratu ditu Gukak, eskualdeko hamaikakoa osatzeko.

Hala, Azkoitiko Aitor Sorazu eta Gorka Larrañaga, Errezilgo Isabel Nobre, Azpeitiko Maider Egiguren, Zumaiaiko Carmen Lopez eta Irati Arakistain, Getaria Justo Silvati eta Lorena

Medina, Zarauzko Bouba Mbaye, Orioko Jon Alkain eta Aia-ko Tise Elorza dira eskualdeko hamaikakoa osatzen duten herritarrak. Talde plurala izateaz gain, horietako bakoitzak euskararekiko duen harremana oso desberdina da.

Hona hemen, eskualdeko hamaikakoko kide bakoitzaren gogoetak eta esperientziak, hurrengo egunetan izango den Euskaraldiaren harira.



Sansinenea industrialdea, B2 · Zestoa
943-44 30 01
gipuzkoa@renovalan.com
www.renovalan.com

- Birgaitze energetikoak
- Irigarritasuna – Igogailuak
- ITE konponketak
- Arriskuak kentzea
- Urbanizazioak
- Estalkiak
- Diru laguntzen kudeaketa

RENOVALAN

*Elkar mugituz
egingo dugu*



JUSTO SILVETI (GETARIA)

"Txikitatik, etxean euskara sumatu nuen. Aitak ez zekien asko erdaraz; amak bai, irakaslea zen gu jaio aurretik. Euskara izan da nire hizkuntza, eta betidanik hitz egin dut euskaraz. Gazte hasi nintzen txalupa-mutil lanean, eta han ere euskaraz egiten nuen. Euskaraz irakurtzeko ohitura dut, eta idatzi ere egiten dut aspalditik: gutunak presoiei, egunerokoa... Ahal duguna egiten dugu. Akats batzuk egiten ditut, z hizkiarekin eta antzekoekin, baina, hala ere, beti euskaraz egiten dut. Horregatik parte hartuko dut Euskaraldian: euskara bultzatzeko egitasmoa delako eta horrelakoetan parte hartzea garrantzitsua delako. Denok egin behar dugu zerbait euskararen alde: ez dakitenek ikasi eta dakigunok erabili".



ONTZI-GARBIGAILUKO
SASKIA ALTXATU,
KARGATZEA ETA
DESKARGATZEA
ERRAZTEKO



CARMEN LOPEZ (ZUMAIA)

"Andaluzian jaiotako zumaiaarra naiz; 8 urte nituela etorri nintzen Zumaiaara, eta nire ametsa da euskaraz hitz egin ahal izatea bilobekin. Gaztaroan gazteleraz hitz egiten nuen kanean, etxean eta lagunartean, baina aitak esandako hitzak grabatuta gelditu zitzaizkidan: 'Gu etxean andaluziarrak izango gara, baina kalera irteten garen momentuan herriko hizkuntza eta kultura errespetatuko ditugu'. Heldua nintzenean zaila zitzaidan euskara ikastea, lana eta umeen zaintza uztartu behar nituelako, baina gure semeek euskaraz ikasteko hautua egin genuen senarrak eta biok. Orain jubilatuta nago eta denbora daukat euskara ikasteko. Bost urte daramtzat AEKn, eta oso garrantzitsua da niretzat jende desberdina ezagutzea. Aurtengo Euskaraldian *belarriprest* rola hartuko dut, baina gustatuko litzaidake 11 egunetatik haratago jarraitzea euskaraz egiten".

fundibide
GROUP

AZPEITIA
Olalde Area, z/g
Urrestilla auzoa
20730
Tel.: 943-81 54 16
fundibide@fundibide.com

ESPERIENTZIA
ZERBITZU AZKARRA
PROIEKTU OSOA
ZERBITZU MOLDAKORRA

fundibide
www.fundibide.com

KLIDAT
www.klidat.com

cranur
www.cranur.com

**AITOR SORAZU (AZKOITIA)**

"Sorpresa handia izan zen Azkoitiko Euskaraldiko hamaikakoaren parte izateko gonbidapena jasotzea. Horrelakoetan ez duzu jakiten edo ulertzen oso ondo zergatik zaren zu hautatueta bat, baina oso gustura hartu nuen proposamena. Urte asko daramatzat euskal dantzen munduan, eta horrek ez dakit erreferentziatzko pertsona bihurtzen nauen, baina egia da jende askok horregatik ezagutzen nauela. Euskara erabat sartuta dago nire egunerokotasunean, nire bizitzan. Egunero erabiltzen dut euskara, naturalki gainera; ez da kostatzen zaidan zerbaite. Beste hizkuntzetan aritzeko bi aldiz pentsatu behar izaten dut, baina euskaraz egiteko ez. Euskaraldiaren egunetan ere berdin jarraituko dut; denei lehen hitza euskaraz egiteko ohitura dut, baita etorkinei ere, eta hala egiten segituko dut".

A blue banner for Orioko Herri Ikastola. On the left, there is a large yellow graphic of interlocking puzzle pieces. To its right, the text "Orioko Herri Ikastola" is written in white, with "ORIO GARA" below it. Further right is the "EUSKARALDIA" logo, which includes a colorful puzzle piece graphic and the tagline "Elkar mugituz egingo dugun". Below the logo is an illustration of a modern building with a large puzzle piece on its facade, surrounded by small figures of people. At the bottom left, contact information is listed: "Abeslari kalea 8, ORIO", "943-83 47 04", "Fax-a: 943-13 09 38", "orio@ikastola.eus", and "www.oriokastola.eus". A small red semi-circle is at the bottom center.



JON ALKAIN (ORIO)

"Norbanako gisa baino gehiago, eragile gisa nago ni Orioko hamaikakoan (dantza eta LGBTIQ+ taldeetako kide da Alkain), eta egia esan, oso pozik gaude, euskararentzako bultzada guztiek onura ekartzen dutelako. Izan ere, gure taldeetan euskara eta Euskaraldia oso garrantzitsuak dira: nortasun bezala ikusten dugu euskara, eta egiten edo antolatzen ditugun ekintza guztietan euskara da gure erroa, beti hasten gara euskaraz. Lehenetsuna da euskara".

ISABEL NOBRE (ERREZIL)

"Duela bi urte eta erdi iritsi nintzen Errezilera. Oso herri euskalduna da, dena egiten da bertan euskaraz, eta horrek bultzatu ninduen euskara ikastera. Euskara ikasteko beharra sentitu nuen. Azpeitiko Udal Euskaltegian ari naiz euskara ikasten, eta oso zaila den arren, ari naiz poliki-poliki hobetzen. Errezilen denek hitz egin dezakete gaztelaniaz, eta horrela hitz egiten didate euskaraz ez dakidala ikusten dutenean. Aldiz, euskara ikasten ari naizela jakitean, euskara praktikatzeko esaten didate, eta euskaraz egiten saiatzen gara. Baina, uste dut, hobe dela nik euskaraz egitea beraiekin; izan ere, zenbat eta gehiago hitz egin, gero eta gehiago ikasiko dut. Egunero zerbait ikasten dut horrela".



BOUBA MBAYE (ZARAUTZ)

"Segituan eman nion baiezkua Zarauzko hamaikakoaren parte izateko gonbidapenari. Oso esperientzia ederra izan da orain arte, eta oso gustura nago. Uztailean sei urte beteko dira Zarautzera iritsi nintzela, eta berehala ohartu nintzen euskara beharrezkoa zela bertan bizitzeko. Hala, euskaltegian hasi nintzen, eta bertan ikasi dut dakidan guztia. Hasieran zaila egin zitzaidan, dena zen berria, baina denborarekin gauzak ulertzen eta ikasten joan naiz, eta errazagoa egiten zait. Euskaltegi oso pozik joaten naiz; material oso ona dugu eta irakasleek ondo azaltzen digute, eta horrek asko laguntzen du ikasketa prozesuan. Orain, Euskaraldia dator eta gogoz nago, euskaraz gehiago egiteko intentzioarekin".



LORENA MEDINA (GETARIA)

"Zazpi urte daramatzat Euskal Herrian bizitzen, eta Getarian, zehazki, hiru. Tabernaria naiz, Getakan, eta lana da nire motibazio nagusia euskara ikasteko. Euskaraz mintzatuz, konexioa, gertutasuna eta konfiantza izan nahi ditut tabernara gerturatzen diren bezeroekin. Izan ere, komunikatzeko gai izatea bada niretzat zerbait garrantzitsua. Konturatzen naiz tabernan 'egun on', 'arratsalde on', 'zer moduz?' eta bestelako agurrak eta esaldi motzak esaten ditudanean jendeari ilusioa egiten diola. Oso maitatua sentitzen naiz Getarian, eta euskara ikasteko laguntza jasotzen dut tabernara etortzen diren bezeroengandik. Euskaraldian parte hartu eta ulertzen dudanari euskaraz erantzutea gustatuko litzaidake. Uste dut hizkuntza bizirik mantentzeko modu bat dela Euskaraldia, eta oso polita iruditzen zait kultura identitatearen parte izatea eta nik horretan nire aletxoa jarri ahal izatea. Getarian bizi naiz, eta pozik nago. Momentuz, hemen egoten jarraitu nahi dut, eta horrexegatik herrian gizarteratu behar dudala sentitzen dut".

TISE ELORZA (AIA)

"Donostian jaio nintzen arren, lehendabiziko hamar urteak Jacan [Espainia] igaro nituen, eta gero, berriz, Argentinara joan nintzen. Beraz, euskaraz ez nuen gehiegi egin txikitan, baina Orion hamar urtez bizi ondoren eta orain Aian bizita, euskara ikastea funtsezkoa dela iruditzen zait. Niretzat euskara oso garrantzitsua da; hiru seme-alaba ditut eta horiek dena euskaraz egiten dute, eta, beraz, nik ere euskaraz egin behar dudala sentitzen dut. Eskolan, lagunekin, beste gurasoekin... harremanak euskaraz dira, eta nire seme-alabentzat garrantzitsua denez euskaraz egitea, niretzat ere oso garrantzitsua da. Lanean ez dut euskara behar, baina umeekin hitz egiteko eta Aian bizitzeko beharrezkoa dut; euskaraz hitz egitea nire ardura ere badela sentitzen dut. Enpatia kontua da: hemen jendeak euskaraz hitz egiten badu, zergatik aldatu behar du bere hizkuntza nirekin? Ez, ez du horrela izan behar; alderantziz, ni naiz moldatu behar dena. Hitz egiterakoan errazegi egiten dut salto gaztelaniara, eta horretan hobetu nahi dut Euskaraldian".





IRATI ARAKISTAIN (ZUMAIA)

"Bertsolaritza irakasten dut, eta euskaraz aritzera bultzatzen ditut neska-mutilak. Gaztetxoei euskararekiko kontzientzia ahula nabari diet, eta pantailetatik eduki asko gaztelaniaz edo ingelesez iristen zaizkie. Zuzenbidea ikasten ari naiz, eta fakultateko euskara taldean ere banabil. Ikaskide batzuek gaztelaniarako joera dute, baina denek ulertzen dute euskara, eta horregatik guztiekin euskaraz egiten dut. Hala ere, badago zer hobetua: irakasgai batzuetan liburu eta lege batzuk gaztelaniaz bakarrik daude".

GORKA LARRAÑAGA (AZKOITIA)

"Ohorea da niretzat Azkoitiko hamaikakoaren parte izatea. Horrela, gainera, euskararen alde egiteko aukera gehiago dut. Urte asko igaro nituen Mexikon; hango Iberoamericana unibertsitatean egin nituen ikasturte batzuk euskara irakasten, eta bertako euskara munduarekin harremana izan nuen arren, ez da Azkoitian bizitzea bezala. Kanpoan bizitzeak gauzak beste ikuspegi batetik begiratzera eramaten zaitu, eta euskararen kasuan, balio gehiago ematen diot orain gure hizkuntzari. Izan ere, beste hizkuntzekin alderatuz, euskarak ikusgarritasuna edo hedapena falta duela ohartzen zara. Orain, Euskaraldia dator, eta gure inguruan euskaraz lasai egin dezakegun arren, ikasteko bidean daudenekin edota atzeritarrekin euskaraz hitz egiten hasteko bitartekoa izan daiteke".



MAIDER EGIGUREN (AZPEITIA)

"Euskaraldia beharrezko egitasmoa dela iruditzen zait; izan ere, oraindik egiteko asko dugu sentitzen dut. Inoiz baino gehiago behar da herritarren euskararekiko konpromisoa. Azpeitian bizitzea eta euskaraz egin ahal izatea luxua da, baina, era berean, azken urteetan halako kontzientzia galtze bat izan dela uste dut. Ez dakit horren zergatia: agian instituzionalizatu egin delako, gauza batzuk lortu ditugulako... baina herri zapaldua izan gara beti, egoera diglosiko batean gaude, eta globalizazio basati bat jasaten ari gara. Baldintza horiek guztiak eragina izaten ari direla uste dut gurea bezalako hizkuntza gutxituan. Azpeitian euskaraz asko hitz egiten den arren, badira euskararekiko harreman oso gertukoa ez dutenak ere, eta denon artean, egoera berezi bat sor dezakegu, modu positiboan gainera". ■



EUSKARALDIA

*Elkar mugituz
egingo dugu*

LIZARDI

KALITATEZKO EUSKAL IRAKASKUNTZA PUBLIKOA



Lizardi
Institutua
Zerauz

Araba kalea, 18
48001 Zerauz (Bizkaia)
0920000000@lizardi.eus
www.lizardi.eus



AGENDA

Azkoitia

Maiatzak 10. Euskaraldiko txapa banaketa. 11:30etik 13:30era, plazan (eguraldi txarra eginez gero, Portaleburun).

Maiatzak 12. Euskaraldiko txapa banaketa. 12:00etatik 13:00etara eta 17:30etik 19:30era, plazan (eguraldi txarra eginez gero, Portaleburun).

Maiatzak 13. Euskaraldiko txapa banaketa. 12:00etatik 13:00etara eta 17:30etik 19:30era, plazan (eguraldi txarra eginez gero, Portaleburun).

Maiatzak 14. Euskaraldiko txapa banaketa. 12:00etatik 13:00etara eta 17:30etik 19:30era, plazan (eguraldi txarra eginez gero, Portaleburun).

Maiatzak 23. Ana Goitia-ren *Katana* bakarriketa. 19:00etan, Baztartxo antzokian.

Azpeitia

Maiatzak 10. *Ikurrinak kalera* egitasmoa. Ikurrinak kalera ateratzeko deia egin diete azpeitiarrei.

Maiatzak 15. Euskaraldiaren hasiera ekitaldia, herriko ikas-tetxeekin. Goizean zehar.

Maiatzak 16. Hika-otarrearen zozketa, herriko taberna batzuetan. Euskaraldiko txapa jantzita eraman eta hika hitz egiten dutenak produktuz osatutako saski baten zozketan sartuko dira.

Maiatzak 22.

- *Belarriprest* rola izango dutenen goiz-pasa, Udal Euskaltegiaren eskutik.

- *Zopa* antzezlanaren taularatuko du Xirikara umorezko antzerki taldeak. 19:00etan, Soreasu antzokian.

Maiatzak 23. Hika-otarrearen zozketa, herriko taberna batzuetan. Euskaraldiko txapa jantzita eraman eta hika hitz egiten dutenak produktuz osatutako saski baten zozketan sartuko dira.

Maiatzak 25. Xoxotera igoera, Lagun Onak mendi bazkunaren eskutik. Parte hartzaile guztiek argazki erraldoia aterako dute tontorrean.

Errezil

Maiatzak 16. Garbiñe Bereziartuaren hitzaldia, hitanoaz eta nokaz. 18:00etan, udaletxeko batzar aretoan. Ondoren, hika iluntzea herrian.

Maiatzak 20. UEMArekin saio irekia: *Hizkuntzaren ikuspegitik, nolako Errezil nahi dugu hemendik hamar urtera?*. 19:00etan, udaletxeko batzar aretoan.

Maiatzak 23. Euskaraokea gaztetxoentzat eta txokolatada. 18:00etan, zimitorioan.

Getaria

Maiatzak 9. *Topahika* hika-garagardo saioa, frontoian. - 19:00etatik 19:30era, *Ba al dakin/k nola egiten den garagardoa?*.

- 19:30etik 20:00etara, Hikadromoa.

- 20:00etatik 21:00etara, garagardo eta pintxo-potea, *photocall*-arekin batera.

Gainera, 18:30etik 20:00etara, txapak banatuko dituzte, plazan.

Maiatzak

10. Euskaraldiko txapa banaketa. 12:00etatik 13:30era, plazan.

Maiatzak

15. Euskaraldiaren hasiera ekitaldia, 19:00etan.

Maiatzak

17. Zarauzko gitarra taldearen kaljira, 19:30ean hasita.

Orio

Maiatzak 15. *Nola egin ondo Euskaraldiaren ariketa* hitzaldia, Araitx Muguruzaren eskutik. 19:00etan, Kultur Etxean.

Maiatzak 16. Kantu afaria. 21:00etan, Balea elkartearen (izen ematearekin).

Maiatzak 17. Hikadromoa, Orioko AEKren eskutik. 12:00etan, plazan.

Maiatzak 18. *RR-6 eRRe(AH) ala*, Maialen Lujanbioren eskutik. 19:00etan, zimitorio zaharrean.

Zarautz

Maiatzak 9. Gune ibiltaria eta haurrentzat jolasak, Zarauzko aisialdi taldeen eskutik. 17:00etatik 20:00etara, Lege Zaharren Enparantzan.

Maiatzak 15. Txapa jantzea



eta ondo-
ren... herriko
kultur eragileekin kalejira!
18:30ean, Lege Zaharren En-
parantzan.

Maiatzak 21. Mintzodromoa:
*Nola heldu gara euskara ikas-
tera?*, Bouba Mbayeren testi-
gantzatik abiatuta. 18:00etan,
Merkatu Plazan.

Maiatzak 23. Gazteentzat
kantu afaria, Zarauzko aisialdi

taldeen eskutik. 20:30ean,
Ongi Etorri elkartean.

Zumaia

Maiatzak 10. Josefran Izpi-
zuak gidatuta, *Hikaren argi-
bideak*. 11:00etatik 12:30era,
Alondegiko Moila gelan.

Maiatzak 15. Euskaraldiari
hasiera emango dion txu-

pinazoa,
19:00etan.

Maiatzak 16. Hi-
kadromoa. 18:00eta-
tik 19:30era, Oxford are-
toan.

Maiatzak 17. Erromeria, As-
tindu dantza taldearen esku-
tik. 19:00etatik 22:00etara,
Kofradian.

Maiatzak 23. Noka eta triki-
poteoa, Emakumeon Etxetik
hasita. 19:00etan.

Maiatzak 25. Kantujira,
Larraina eta Korrokoia tal-
dekoek antolatuta. 12:30ean,
Beheko Plazatik hasita.



**ZERBITZU PERTSONALIZATUA ETA
INTEGRALA EMATEA DA GURE HELBURUA**



Harzubia hiribidea, 51 - AZPEITIA
erniosukaldeak@erniosukaldeak.com
943-81 57 05 - 943-15 00 63